



EUSKAL KOSTALDEKO UNESCOREN MUNDUKO GEOPARKEA

KUDEAKETA PLANA
2017

Dokumentu honetan, 2017. urterako aurreikusitako Geoparkeko jardueraplana deskribatu da, 2016-2020 Plan Estrategikoan oinarrituta eta plan horretan bertan finkatutako lan-ardatzei jarraikiz prestatu dena.

3 PILARES ESTRATÉGICOS + 2 PILARES ESTRATÉGICOS TRANSVERSALES



2016an zehar gauzatutako gogoeta estrategikoak agerian utzi zuen ahulezia edo hobetu beharreko gai batzuk zeudela, eta, hain zuzen ere, horiek zuzentzeko xedea du plan honek. Hauek dira gaiak:

- Geogarapen kudeaketa-organoak egitura ahula du, eta horrek ez du bide ematen lan-aukera berriak sortzeko edo epe ertain edo luzera proiektu berriak hasteko.
- Herritarrek proiektuan parte hartzeko bideak ireki behar dira, bertako populazioaren inplikazioa areagotze aldera. Gurea proiektu gaztea da, eta, beraz, oraindik ez du erro sakonik jendearengan.
- Euskal Kostaldeko Geoparkea, eremu naturaleko helmugen artean, produktu geoturistiko gisa posizionatzea lortu behar dugu. Bisita gidatuen programa horren erakusgarri da, baina sakondu gabe dauden beste inguru edo eremu batzuetan ere jarraitu behar dugu proiektua lantzen.

- Inguru karstikoaren garapena erronka garbia da Geoparkearentzat. Barnealdean ere bisitarientzat erakargarri izango diren baliabideak edukitzen lagunduko duten proiektuak sustatu behar ditugu.
- EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA / GEOPARQUE DE LA COSTA VASCA markaren aldeko apustua egin behar dugu, UNESCOren nazioarteko sustapenez eta Euskal Kostaldea markaren posizionamenduaz lagunduta.
- Hiru turismo-bulegoetan irizpide desberdinei jarraitzen zaie datuak biltzeko orduan. Hori horrela, zaila izaten da bisitatzen gaituzten pertsonen profilari eta gustuei buruzko ondorio baliagarriak ateratzea.
- Sektore pribatua ez dago oso bateratuta, eta inplikazio txikia du Geoparkean. Sektore sendo bihurtu behar da, eta proiektuan aktiboki parte hartu behar du.
- Azpiegiturak falta dira, oro har, eta interpretaziokoak bereziki. Bisitak egiteko eta interpretaziorako gune egokiak eduki behar ditugu.

Hobetu beharreko gai horiei erantzuna emate aldera, honako jarduera hauek gauzatuko ditugu 2017an:

PLANGINTZA, ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA OROKORRA

Lan-taldea

Geogarapen organoko langileak

- 2017ko berrikuntza nagusia da pertsona bat kontratatuko dugula turismoaren alorrean **bisita gidatuen dinamizatzaile eta merkaturatzaile** izan dadin. Bisita gidatuen kudeaketak bilakaera nabarmena izan du, eta horrek turismo-bulegoen lan-karga handitzea ekarri du. Helburu estrategikoz, bisitak zuzenean Geogarapen erakundeak kudeatuko dituela erabaki da, ikuspegi zabalago batez eta merkatuak eskatzen dituen aukera berriei bide emanez kudeatu ere.



- **Gerentziak** Geoparkearen kudeaketa orokorrarekin lotutako eginkizunak betetzen jarraituko du, bai eta Europako eta Munduko Geoparkeen Sarean (EGS/MGS) eta Espainiako Geoparkeen Batzordean (CNEG) ordezkari-tza-lanak gauzatzen ere.

Kanpo-laguntza:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunekin jarraitzen du, bai eta EGS eta MGS foroetako ordezkari-tzarekin ere. Gainera, Espainiar Estatuko Geoparkeen Foroaren koordinatzaile izendatu dute aurten.
- **Komunikazio-zerbitzua eta prentsa-kabinetea** arduratuko dira komunikazioaren alorreko aholkularitza, prentsa-oharrak sortzeaz, web-orria eguneratzeaz, eNewsletterraz, eta abarrez.
- **Community manager** bat (sare sozialen kudeatzailea) arduratuko da @Geoparkea markak Facebooken, Twitterren eta Instagramen gauzatuko duen estrategiaz.
- **Ingurumenaren eta jasangarritasunaren** koordinazioa, Naturagune Babestuen (NB) jarduerak eta ingurumen-heziketako ekintzak sustatzeko. 2017an zehar, Geoeskolekiko lankidetzatza sendotuko da.
- **Geoparkezale** komunitatea dinamizatuko dugu, sektore pribatuarekin hasitako lanarekin jarraituz eta beste kolektibo batzuekin lan-ildo berriak irekiz.
- **Kontabilitate- eta zuzenbide-aholkularitza** erakundearen eguneroko kudeaketarako.

Geoparkeak, Ingalaterrako, Irlandako, Frantziako eta Portugaleko beste 14 bazkiderekin batera, Atlantikoko Geoparkeak proiektua aurkeztu dio **INTERREG Gune Atlantikoa** Programari. EBk proiektua finantzatzea erabakitzen badu, bi urtez gauzatuko da, eta hainbat jarduera finantzatuko ditu Geoibilbide europar bat sortzeko eta hura sustatzeko eta merkaturatzeko xedez.

1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Ardatz estrategiko honen xedea da Lurraren Zientzien ikerketarekin eta sozializazioarekin eta geoaniztasuna eta ondare naturala eta kulturala babestearekin lotutako helburuei erantzuna ematea.

Zehazki, ondare geologikoaz gainera, ondare arkeologikoa, itsas ondarea eta ondare ukiezina hartzen ditu kontuan. Ardatz horren helburuetako bat da, baita ere, ingurumen-heziketako eskaintza koordinatu bat sortzea, Euskal Kostaldeko Geoparkea hainbat motatako jendearentzat interesgarri egingo duena, eta eskola-esparruarentzat bereziki.

1.1. Lurraren Zientzien (LZ) alorreko ikerketa eta dibulgazioa

- Bi ikerketa-proiektu sustatuko dira.
 - UPV/EHUren Kuaternarioari buruzko masterra: *Ingurumenaldaketak eta gizakien arrastoa*.
 - ZARAGOZAKO UNIBERTSITATEA Goi Kretazeoari buruzko ikerketa.

- Ikastaroetan eta txostenetan parte hartzea.
Urte osoan, topaketa, ikastaro eta beste hainbat forotan parte hartzen dute Geoparkeko ordezkariak. Leku horiek ikusgarritasun handia dute, eta hartzaile oso zehatzei zuzenduta daude, eta Geoparkeak erreferentziarako erakunde gisa posizionatu nahi du horietan ikerketaren eta dibulgazioaren alorrean.

- Flysch & Go
Euskadi-Akitania Programarekin batera finantzatutako proiektua. Hendaiako CPIE Litoral Basque kidearekin batera, euskal kostalde osoaren mapa bat sortuko dugu, bai eta txango geologiko bat egiteko behar den materiala ere. Gainera honako ikastetxe hauetako ikasleen arteko truke bat gauzatuko da:

- Etxepare Lizeoa (Baiona)
- Lauaxeta Ikastola (Amorebieta)



- Geoparkeko gidarien prestakuntza-ikastaroa.

Gidariak prestatzeko ikastaro bat egin zen 2015ean, eta arrakasta handia izan zuen. 2017an, gidariak prestatzeko bigarren ikastaroa egingo da, eta lan-garapenerako aukera ematen duen leku gisa aurkeztuko dugu Geoparkea.

- Geoparkeko Batzorde Zientifikoaren bilera.

Batzorde Zientifikoaren ikusgarritasuna areagotze aldera, herritar guztiei zuzendutako dibulgazioko ekitaldi zientifiko bat antolatuko dugu. Oraindik zehazteko dago ekitaldiaren formatua, baina Geoparketik kanpo egin daitekeela aurreikusten da, entzute handiagoa izan dezan eta zientziaren alorreko beste erakunde batzuekin lankidetzaz sortzeko aukera eman dezan.

Gainera, Karstari buruzko nazioarteko ekitaldi txiki bat antolatzeko asmoa ere badugu, baina hori oraindik ebazteko dagoen proiektu europar baten mende dago.

1.2. Ondare arkeologikoari eta aurrehistoriari buruzko ikerketa eta dibulgazioa.

- Kuaternarioari buruzko ikerketa, UPV/EHUren Kuaternarioari buruzko masterrarekin (*Ingurumen aldaketak eta gizakien arrastoa*) sinatutako hitzarmenarekin lotuta.

- Aurrehistoriaren interpretaziorako estrategia diseinatzea.

Oraindik garatu gabe dagoen Geoparkearen interpretazio-ildoetako bat da. 2017an, kontratu bat esleituko da Geoparkeak aurrehistoriari buruz izango duen diskurtsoa finkatuko duen dokumentu bat sortzeko, bai eta hori gauzatzeko plan bat ere.

1.3. Itsas ondarea dibulгатzea

- Itsas historia beste diskurtso batzuetan sartzea. Horretarako, arlo horrekin lotutako gaiak eta horietan lan egiten duten erakundeak identifikatuko dira, Geoparkea haiengana hurbiltzeko eta lankidetzaz-aztertzeko.

1.4. Ondare ukiezina dibulгатzea

- Euskarari buruzko diskurtsoa lantzea. Horretarako, arlo horrekin lotutako gaiak eta horietan lan egiten duten erakundeak identifikatuko dira, Geoparkea haiengana hurbiltzeko eta lankidetzaz-aztertzeko.

1.5. Ingurumen-heziketa

- Ingurumen-heziketaren inguruan gaur egun zer eskaintza dagoen aztertzea, eta hobekuntza-plan bat prestatzea. Ondo jakin behar dugu zer eskaintzen den gaur egun Geoparkean, gure eskaintza propio bihurtzeko, horretarako egin beharreko aldaketak eginez.
- Geoparkearen unitate didaktikoa edo material baliokideren bat, ikastetxeetan lantzeko. Maila bakoitzerako material egokia finkatu beharko da, eta maila bat aukeratu urte bakoitzeko.
- Geoeskolak sustatzea. Zumaiako, Debako eta Mutrikuko ikastetxeen arteko lankidetzaz sendotu behar da, eta Geoeskolek eta Geoparkeak duten paperari buruzko sentsibilizazioa bultzatu.

2. ARDATZA: GEOTURISMOA

Geoparkean geoturismoa sustatzeko ekintzak proposatzen dira. Geoparkera egiten diren bisiten kopurua handitzea da helburua, turismo jasangarriaren irizpideei jarraikiz beti ere.

2.1. Produktuak eta baliabideak

- Lasturko informazio-gunearen 2. fasea



Karstean saltzeko moduko produktu turistikoak sortzea da erronka nagusietako bat, eta, horrela, kostaldearen eta barnealdearen arteko desorekak murrizteko ahalegina egitea.

2016an, Karstari buruzko informazio-gunea ireki zen Lasturko Aterpetxearen beheko solairuan. 2017rako, esku-hartzea areagotu eta barnealdean dauden honako elementu hauek interpretatuko direla aurreikusten da: arraste-harriak, barrenarriak, harrobi-frontea... Horrela, harriari eta haren erabilerari buruzko zirkuitu interpretatu txiki bat sortu ahal izango dugu.

Geoparkeak natura-helmuga gisa posizionatu nahi du, eta 2017an, urratsak egingo ditugu hori lortze aldera: pausoz pauso, hainbat gai landuko ditugu, hala nola Geoparkeen Ekoturismo Elkarte, eta Turismo Jasangarrirako Europako Gutunari (TJEG) atxikitzea.

2.2. Bisita gidatuak

- Bisita gidatuen programa

Geoparkeko produktu arrakastatsuen da; horrexek bereizten gaitu gertuko beste leku batzuetatik, eta horrexek ematen digu ikusgarritasuna. Gainera, dibulgaziorako tresna eraginkorra da, eta bisitariak asko balioesten dutena.

2017ko programa 16 esperientziak osatzen dute, eta mila bisita gidatutik gora antolatu dira urte osorako. Bisita gidatuak on-line merkaturatzen dira batez ere, www.geoparkea.com web-orriaren eta turismo-bulegoen bidez, baina bidaia-agentziek ere Geoparkearekin lankidetzan jarduteko gero eta interes handiagoa erakusten dute.

2017ko programak orain artekoen bideari jarraituko dio eskaintzen diren proposamenei dagokienez. Eskaria areagotu izanak itsasontziz egiten den bisitaren iraupena laburtzeko beharra ekarri du, horrela jende gehiagori erantzun ahal izateko. Lehen “Zumaia-Deba-Zumaia” izena zuen irteera “Flyscha, begirada batean” izango da orain, eta 90 minutuko iraupena izan



ordez, 60 minutukoa izango du. Horrela, maiztasun handiagoz iritsiko dira itsasontziak Debara eta Mutrikura.

Bisita gidatuen programaz gainera, profil zientifikoagoa duten pertsonen zuzenduta dauden eta neurria antolatzen diren bisitak dinamizatzen hasiko gara 2017an. Orain arte ez dugu eremu hori landu izan, baina iruditzen zaigu arakatu beharreko merkatu-hobia dela, eta bat datorrela gure filosofiarekin. Horrela, gainera, turismo hori ez da urteko sasoi jakin batzuekin lotuta egongo, eta izaera zientifikoagoa izango du.

2.3. Sustapena eta merkaturatzea

- Fam trip bereziak bloggerrekin, agentzia espezializatuekin edo prentsarekin. Beste erakunde batzuekin (Basquetour edo SS Region) ditugun hitzarmenak sendotuko ditugu, haien programetan sar gaitzaten.
- Turismoa sustatzeko azokak. Basquetourren edo eskualdeen parte-hartzea duten azoka guztietan egongo da Geoparkea ere. **Basque Fest 2017** azokan bakarrik hartuko dugu parte Geoparke gisa, Bilbao Turismo elkarteak zuzenean gonbidatuta.
- Interpretazio-liburuxkak eta -materiala. Geoparkearen sustapen-materiala turismo-bulegoetan eta azoketan banantzen da, eta, joan den urtetik aurrera, baita Donostiako San Sebastian Region bulegoan ere. 2017rako, agortzen diren liburuxkak berrargitaratzeko asmoa dugu, ez baitugu material berririk sortzeko asmorik.
- Datafonoak jarriko dira Deban eta Mutrikun bulegoetan bisita gidatuak ordaintzeko. Zumaian dagoeneko badago saltokiko terminal (ST) bat bisita gidatuetarako.

- Sustapen zehatzak egingo dira bultzada berezia behar duten bisita jakin batzuetarako. Garrantzi berezia emango zaio on-line sustapenari.
- Bisitetako diskurtsoak berrituko dira, eta, beraz, grabazio eta hizkuntza berriak egongo dira eskuragarri bisita gidatuetan.
- Bisitei buruzko material grafikoa prestatuko da gidarientzat. Materiala urtero eguneratzen da, hondatu egiten delako, edo diskurtsoan eduki berriak sartzen direlako (fitxak, karpetak...).

3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

3.1. IBILBIDEAK ETA MENDI-BIDEAK DISEINATZEA

- Interpretatutako geoibilbideen sarea osatzea. Biotopoaren 5 ibilbideekin eta Olatzen interpretatu berri denarekin batera, geoibilbideen sare koherente eta erakargarria sortzea.

3.2. INTERPRETAZIORAKO AZPIEGITURAK

- 2017an hiru udalerrietako seinale bertikalak bateratzeko plan bat gauzatzeko asmoa dugu. Hori lagungarri izango da Geoparkearen irudi bateratu bat emateko.

Jarraian aipatuko ditugun proiektuak eta esku-hartzeak ez daude zuzenean Geoparkearen mende, eta, beraz, ez dira Kudeaketa Planean sartu; alabaina, eragin zuzena dute gugan. Beste batzuen artean, aipatzekoak dira San Telmotik Algorriko puntarako sarbidearen egokitzapena, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017an egiteko asmoa duena, eta oraindik haren garaia iritsi ez bada ere begi-bistatik galdu nahi ez dugun beste proiektu bat, Kobalde leize-zuloaren (Olatz-Mutriku) hain zuzen ere. Azken hori proiektu estrategikoa da, eta baldintzak hobetzeko eta hura gauzatu ahal izateko lan egingo dugu.

Irisgarritasuna ere landu nahi dugun gaietako bat da, baina proiektu gisa sartu eta kontu-sail ekonomiko bat esleitu baino lehen, Geoparkea helmuga irisgarri bihurtzeko zer aukera dauden aztertuko dugu 2017an, eta, emaitzen arabera, hurrengo urterako ekintzak programatu ahal izango ditugu.

3.3. Ingurune naturala babestea eta kontserbatzea

- **Lurraldearen zaintza** Ingurumen Sailburuordetzak bultzatutako tresna bat da, ondare naturala zaintzeko sortutakoa. Formula hori baliagarria da Interes Geologikoko Lekuentzat ere. 2017an, proba bat egingo da formula berri horrekin.
- **Boluntariotza**-programa ere Ingurumen Sailburuordetzak sustatutako ekimena da. Ekimen hori ezin hobeki uztartzen da Geoparkezaleen sozializazio-estrategiarekin, eta, beraz, 2017an kanpainaren bat egingo dugu pertsona boluntarioekin.
- **Nazioarteko egunak** ospatuz ere entzute handia lortzen da komunikabideetan; hortaz, egoera hori baliatuko dugu gure ikusgarritasuna areagotzen lagunduko digun ekitaldiren bat antolatzeko: ozeanoen nazioarteko eguna, ingurumenaren nazioarteko eguna...
- 2013an, **IGLen Inbentarioa** eguneratu zen, udalek hura ezagutu eta haien planeamenduetan sar dezaten.

4. ARDATZA: KOMUNIKAZIOA

4.1. Harremanak Europako Geoparkeen Sarearekin (EGS) eta UNESCOrekin.

Geoparkearentzat garrantzi estrategikoa du sarean ongi posizionatzeak. 36. Koordinazio Batzordearen antolaketa oso positiboa izan zen, eta 2017an helburu berari eutsiko diogu.

- EGSren topaketak 2017an
 - Udaberriko Koordinazio Batzordea Burren & Cliffs of Moher Geoparkean (Irlandan), martxoaren 22tik 25era.
 - EGSren Koordinazio Batzordea eta Biltzarra Azores Geoparkean (Portugal), irailaren 6tik 9ra.
- Urteroko ekarpenak Europako eta Munduko Geoparkeen Sareari, sustapen-tasa gisa lehenik, eta UNESCOren Geoparkeen programaren funtzionamendurako ekarpen gisa bigarrenik.
- Red Vasca Unesco / Euskal Herriko Unesco Sarearen sustapena, Koordinazio Batzordeko kide aktibo garen heinean. 2017an ekitaldi bat antolatuko da, batetik, EHUS sareari ikusgarritasuna emateko, eta, bestetik, Geoparkea UNESCOren balioekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin lotzeko.

4.2. Komunikazio estrategikoa

ON-LINE

- Web-orriaren kudeaketa eta erreserben zentralaren hobekuntzak urtero gauzatzen ditugu. www.geoparkea.com web-orria etengabe eguneratzen dugu, eta aldizka albiste berriak argitaratzen ditugu. Gainera, edukiak eguneratzen ditugu eta atal berriak irekitzen ditugu urtero, eta sasoi bakoitza hasi baino lehen hobekuntza ugari egiten ditugu bisita gidatuen atalean eta erreserba-prozesuan. Sistema hobetzen doa erreserba-kopurua handitzen den heinean. 2017an honako hobekuntza hauek egingo ditugu:
 - Bisita eta eduki berriak
 - Bisualagoa eta intuitiboagoa
 - Hornitzaile berriak sarbide-erabiltzaileekin
 - Audiogiden erreserba hobetzea
 - Beste zenbait hobekuntza prozesuan: hizkuntzak, egutegia...

OFF-LINE

- Komunikabideetan **iragarkiak** jartzea, irratian zein prentsan edo aldizkari espezializatuetan. Batez ere hiriburuetako komunikabideetan, eta jarduera turistikoa murriztagoa den hilabeteetan bereziki.
- **Blog trip** direlakoak nazioartean entzutea izan dezakeen jendemultzo mugatu eta berezi batentzat.
- Geoparkearen erredukzionismoaren kontrako **kanpaina**. Geoparkea duen handitasun erakusteko modurik egokiena bilatuko dugu osoz, geografiaren zein jardueren ikuspegitik.
- Geoparkeari buruzko albisteen sei hilez behingo **aldizkaria**, Debako, Mutrikuko eta Zumaiako etxe guztietara banatzen dena, eta azken sei hilabeteetako albiste nagusiak laburbiltzen dituena. 9.000 ale argitaratuko dira, ekainean eta abenduan (10. eta 11. aleak).
- Geoparkeko sustapen-jarduera guztietan kalitate handiko **argazkiak**, liburuxkak, web-edukiak, iragarkiak eta abar sortu behar dira. Horretarako, argazkilari profesionalekin lan egiten dugu, eta adostutako baldintzetan sustapenerako erabil ditzakegun argazkiak hautatzen ditugu.

5. ARDATZA: TOKI GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA

5.1. LEHEN SEKTOREA SUSTATZEA

Ez da aurreikusten 2017an arlo horretako finantziazio-baldintzak aldatuko direnik; hortaz, ez dugu jarduera berririk aurreikusi.

- **Geogourmet saskiak** saltzea lurraldean ekoiztako produktu bereziak balioesteko eta Geoparkea sustatzeko ekintza gisa. Hornitzaile berekin jarraitzen dugu, eta hiru turismo-bulegoetan egongo dira salgai prezio berean.
 - Txakolina: Sagarmiña eta Flysch



- Gazta: Goienetxe
- Atuna kontserban: Sizzo eta Nardín

5.2. GEOPARKEZALEAK

2016an sektore turistikoko enprekin hasitako lanak aurrera jarraituko du aurten ere, eta, gainera, komunitate birtualaren oinarriak finkatzen hasiko gara.

- Honako jarduera hauek gauzatuko ditugu sektore pribatuarekin:
 - Geoparkezaleen irizpideak finkatzea (TJEGrekin bat).
 - Logotipoa diseinatzea eta erabiltzaileentzako gida lantzea.
 - Web-orrian Geoparkezaleak atala diseinatzea, ekimenarekin bat egin duten enpresei buruzko informazioa jasoko duena.
 - Prestakuntza-ikastaroa antolatzea bat egin duten kideentzat.
 - Komunitatearekin bat egin dutela erakusteko ekitaldia eta familia-argazkia.

Sektore pribatuak, bere aldetik, sustapen-ekintza bateraturen bat egingo du proiektuan inplikatur dagoela erakusteko.

- Geoparkezale komunitatea sortzea. Horretarako, bideo “gizatiarra” egingo da kideak erakartzeko kanpaina gisa, bai eta Street marketing ekintzak ere.

5.3. GEOPARKEEN EUROPAKO ASTEA

Maiatzaren 26tik ekainaren 11ra, Geoparkeen Europako Astea ekimena gauzatuko da. Egun horietan, kalera eraman nahi dugu Geoparkea, eta herritarrek antolatutako ekitaldietan parte hartzea. Honako ekitaldi hauek egingo ditugu, besteak beste:

- Hitzaldiak



- Tailerrak, erakusketak...
- Dohako bisita gidatuak
- Marrazketa-lehiaketa ikasleentzat
- Jaialdia, mendi-martxa...